

IRAKASLE FUNTZIONARIOEN LAN-BALDINTZEI BURUZKO

AURRE-AKORDIOA

Mahai sektorialarekin ekainaren 21ean izandako bileran, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta CC.OO erakunde sindikalak aurre-akordio bat lortu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak 2007tik 2009ra bitartean arautuko dituen testuaren edukiaren inguruan.

Aurre-akordio hori -nahitaezko txostenak egin eta gero- Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu beharko du, eta gero alderdi biek berretsi beharko dute. Dena den, ez du eraginik izango Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu arte.

Hona testuaren funtsezko berrikuntzak:

Irakasleak

.-2007 eta 2011. urteen bitartean lana finkatzeko plana

Hainbat lan-eskaintza publiko burutuko dira 2007 eta 2011. urteen bitartean. Horretarako, urtero-urtero deialdiak egingo dira, eta gutxi gorabehera 3.000 lanpostu eskainiko dira.

Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko aldi baterako erregimena aplikatuko zaie deialdi horiei. Izan ere, bitarteko irakasleen zerbitzuak hobeto baloratzen dira horrela, eta irakasle horien azterketaren ordezkari hezkuntza-administrazioaren txostena erabiliko da.

Neurri horren helburua da euskal irakaskuntza publikoaren bitarteko irakasleen ratioak aurrekontuko lanpostu-zerrendaren % 8 ez gainditzea. Horrela, lanpostu-zerrenda eta klaustro egonkor-egonkorrak lortu nahi dira.

.-Irakasleak hornitzeko prozesuei, administrazio-egoerei eta arautegiari buruzko aipamenak egiten dira.

.-Lanpostu berezien lekualdatze-lehiaketa egiteko asmoa azaltzen du Hezkuntza Sailak

.-Bitarteko irakasleei buruzko kapitulu bat azaltzen da. Bertan, irakasleak ikastetxean finkatzeko sistema berria arautzen da, ikastetxeen lanpostu-zerrendak egonkorragoak izan daitezen. Horrez gain, beste hainbat gai ere jorratzen dira, esaterako, irakasleak ekitaldi publiko bakar batean hautatzea, asteko gehieneko jarduna gainditzen duten orduak doitzeko proposamena eta abar.

.-Ordezkoak jartzerakoan, eta egungo egoeratik abiatuta, bajak lehenengo egunetik ordezkatzeko dira, norbere gauzetarako baimenak eta terapia-pedagogiako ikasgela

ixietakoak badira. Lehen Hezkuntzako bajak, berriz, laugarren egunean ordezkatu dira, Ingeleseko eta Euskarako bajak izan ezik, horiek hirugarren egunean ordezkatu dira eta.

Planifikazioa eta lanpostu-zerrendak

.-Lanpostu-zerrendan 1.060 lanpostu gehiago jasoko dira, irakasleen lanpostu-zerrenda mantentzeko oinarritzko berme legez.

.-Ikastetxeen ratioa hobetuko da, ratio hori 1,5 baino txikiagoa bada eta ikastetxeek 2 urteko gelak badituzte. Konpromisoa hartu da, planifikazio-batzorde teknikoak azter dezan nola gauzatu den neurri hori. Batzorde horrek egin behar diren aldaketa-proposamenak egingo ditu edo baliabideak proposatu ditu, gela horietan antzematen diren premiei ahalik eta ondoen aurre egiteko.

.-Tutorearen lanpostua irakasle espezialista batek betetzea onartzen da.

.-Hezkuntza indartzeko klaseak emateko ordu-kreditu gehigarriak jartzeko eta/edo edo klaseak banatzeko formula berria. Formula horri esker malgutasun gehiago izango da ikastetxea egituratzeko orduan.

.-Hezkuntza-premia berriei aurre egiteko baliabide gehiago izango dira.

.Kultura aniztasuna eta ikasle etorri berriak sartzeara.

-Hizkuntza indartzeko irakasleen kopurua 250era igoko da, eta lanpostu-zerrendatan azalduko dira ikastetxe berean 3 urtean mantendu diren lanpostuak.

-Irakasle erdiren ordu-kreditua emango zaie ikasle etorkinen kopuru jakin bat gainditzeko duten ikastetxeei.

.Elkarbizitza-planak egitea.

-Irakasle erdiren ordu-kreditua emango zaie 115 ikastetxeri 2007-2008 ikasturtean elkarbizitza-plana egiteko; 2009-2010 ikasturtean, berriz, ikastetxe guzti-guztietan egingo da.

.Informazioaren eta Komunikazioaren teknologia berriak bultzatzea.

-Irakasle erdiren ordu-kreditua emango da, IKTak dinamizatzeko diagnosi-proiektu baten arabera. 2007-2008 ikasturtean 115 ikastetxetan bultzatuko da, eta 2009-2010 ikasturtean, berriz, ikastetxe guzti-guztietan.

-Euskarazko eduki digitalak sortzea eta indartzea.

.Helduen Hezkuntzako ikastetxeak eta hizkuntza-eskola ofizialak.

-Ikastetxe horiek irakasle gehiago izango dituzte.

.Orientazioa.

-Helduen Hezkuntzako ikastetxeek 15 orientatzaile gehiago izango dituzte.

-Lanbide Heziketako ikastetxeek 4 orientatzaile gehiago izango dituzte, ingurune kaltetuenetan badaude eta lanbide hastapeneko ikasleak

- badituzte. Lanbide Heziketan figura hori 2007-2008 ikasturtean sartuko ote den aztertze konpromisoa hartu da.
- Orientatzailearen bigarren lanpostua jartzeko baldintzak hobetuko dira.

Lanaldia

- .-Laguntza-zerbitzuen lanaldia aipatzen da, irakasleen taldeak egun duen lanaldiaren baldintzak mantentzeari begira.

Lizentziak, baimenak, ordutegi-murrizketa eta langileen egoerak

- .-Lizentzia eta baimenen kapitulua handitu eta egokituko da, berdintasuna lortzeko eta lana eta familia uztartzeko legedia betetzeko.
- .-Haur eta Lehen Hezkuntzako 59 urtetik gorako irakasleek, gehienez ere 2 irakas-ordu gutxiago emango dituzte klaseetan, eta ordu horiek hezkuntza-administrazioak ikastetxeetarako finkatutako beste jarduera jakin batzuk betetzeko erabiliko dituzte.
- .-Eleaniztasuna ezarri eta garatzeko programetan parte hartzeko ordu-murrizketak onartzen dira.
- .-Bitarteko irakasle guztiei zerbitzuak aldi baterako etetea onartuko zaie.
- .-Lanbidean jardutea eta aldi berean beste irakaskuntza batzuetan klaseak eman izatea uztartuko dituzten formulak bilatzeko konpromisoa.

Gizarte-arreta

- .-Norbere borondatez erretiroa hartzearen ematen diren sariak kalkulatzeko egokitzapenak egingo dira. Horrela, ez dira kaltetuta geratuko lanaldi murriztua edo partzialki ordaindutako baimena duten lagunak.

Ordainsariak

- .-Mahai Orokorrak onartutako soldata igoera jasotzen da, hain zuzen ere % 4,24 eta 4,54 bitartekoa. Seiurtekoen kapitalizazioari eta Itzarriri dagozkien kopuruak gehitu behar zaizkio igoera horri.
- .-Egungo seiurtekoen kapitalizazio-sistema mantentzeko konpromisoa hartzen da, irakasleen lan-karrera negoziatzerakoan ordainsarien sistema berria lortu arte.
- .-Zuzendaritza-karguak eta tutoretzak indartzeko, 9.000.000 euroko poltsa bat banatuko da pizgarrietan. Horretarako, kontuan izango dira arautegian aurreikusten ez

diren jarduera bereziak eta gehigarriak; horiek ikasturte hasierako antolakuntzari buruzko ebazpenetan zehaztuko dira.

.-Ikastetxe publikoetan zuzendari-kargua izatearren ordainsari osogarriaren zati bat jasotzen segituko dela arautzeko konpromisoa; era berean, gaur egun ikastetxeen tipologia zehazten duten eragileak aztertuko dira, dagozkien osagarri bereziak emateko eta egungo hezkuntza-sistemaren errealitatera egokitzeko.

.-Irakasleen lanbide-karrera gaiaren oinarrizko arautegian ezartzen diren printzipioen eta epeen esparruan negoziatzeko konpromisoa.

Irakasleak prestatzea, hizkuntza normalizatzea eta hizkuntza-gaitasuna

.-Bitarteko irakasleak ere prestakuntza jasoko dutela jasotzen da irakasleen prestakuntzaren atalean.

.-IRALE programa moldatuko da, premia berriei eta sektorean finkatutako lehentasunei erantzun diezaien. Era berean, EAEn hizkuntzak ikasi eta irakasteko esparru berria ezartzeko egin behar diren egokitzapenak ere egingo dira. Horrela, ia irakasle guztiak elebidunak izatea lortu nahi da.

.-Bitarteko irakasle gehiagori emango zaie R ikastaroak egiteko aukera.

.-Ikasturte osoko lanpostua betetzen duten bitarteko irakasleak 4000 eta 5000 ikastaroetan parte ahal izango dute, 2. HE lortzeko.

.-Euskalduntzeko heziketa-ibilbidea amaitu arte txanda guztiak egiteko eskubidea izango dute iraganean egonkortasuna izan duten irakasleak, baldin eta joan den ikasturtean unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren sektorean lan egin badute edo IRALEn liberatuta egon badira.

Segurtasuna eta osasuna

.-Lan-arriskuak saihesteko, langileen osasuna eta segurtasuna babesteko jarri behar diren neurri guztiak hartzeko konpromisoa.

.-Segurtasun-laguntzaileari bi irakas-ordu murriztuko zaizkio, prebentzio-jarduerak egiteko prebentzio-zerbitzuarekin lankidetzan jardun dezan.

.-Prebentzioko ordezkariak izendatuko direla aipatzen da.

Elkarbizitza-neurriak

.-Elkarbizitza hobetzeko neurriak jartzen dira:
.Ikastetxeetan planak egingo dira.

- .Elkarbizitzaren Behatokia sustatuko da EAEn.
- .Eskola-jazapen kasurik gertatzen denean eta zehazki ikastetxe publikoetako irakasleen kontrako erasoak suertatzen direnean, nola jokatu behar den jakiteko protokoloak jorratu eta zabalduko dira.
- .Irakasle eta eskolan jardutearen ondorioz prozesuetan sartuta dauden irakasleei defentza juridikoa eta laguntza eskainiko zaie, baldin eta irakaslearen jokaera bat badator ikastetxearen elkarbizitza-planaren izpiritu eta edukiekin.
- .Lan-batzorde bat sortuko da, irakaskuntzan ari diren irakasleen erantzukizun juridikoaren gaietan jarduteko eta orientatzeko protokoloak aztertzeko.